

Linda Chapman & Lee Weatherly

Sophie
eta
Baso iluna

Zingiretako
gaizkinak



desclée

1	Zaindari berria	13
2	Arrasto bila	25
3	Esku hezurtsu jauna	37
4	Zorioneko ihesa	55
5	Sarean!	71
6	Harribitxi horia	84
7	Arriskuan!	101
8	Pentsatu pentsaezinean	118
9	Basoan...	129
	KOADERNO ILUNA	132





Baso Iluna

Oso jende gutxi barneratu ohi da Baso Ilunean. Zuhaitz okerrak pega-pega eginda daude, eta adarrak eskeletoetako besoak bezala luzatzen dira. Zurrumurru bitxiek oihartzun egiten dute aire geldoan, eta badirudi begiak zelatan daudela itzalguneetan. Basoan barneratzen den edonor berehala irteten da handik ikaraz, oilo-ipurdiarekin. Baso hau ez baita besteak bezalakoa. Sakon-sakonean ate bat dago Erreinu Ilunera: mundu beltz eta kaotiko bat da, iratxo, gaizkin, troll eta beste izaki maltzurren bizilekua.

Duela ehunka urte, Erreinu Iluneko izakiak gure munduan eta beraienean ibiltzen ahal ziren



batetik bestera, baina hamaika arazo sorrarazten zituztenez, gizakiek erabaki zuten bi munduen arteko atea betiko itxi behar zela. Hala ere, inork ez zekien hori nola egin, harik eta botere magikoak zituen sarrailagile batek burdinazko giltza bat egin eta Erreinu Iluneko harribitxi bat giltzaren heldulekuan jarri zuen arte. Lortu zuen! Sarrailagileak ahal bezainbeste izaki itzuli zituen haien mundura, eta atea giltzaz itxi zuen ondoren.

Egun hartan, sarrailagilea Atearen Zaindaria bihurtu zen; ordutik giltza baliotsua gorde du eta saiatu da mundu honetan geratu ziren izaki ilun gutxiek arazo gehiegi sor ez dezaten.

Zahartu zenean, bere botereak bilobari pasatu zizkion, eta horrek ere eskualdatu zizkion bere





bilobari. Ehunka urtean, Zaindaritza aito-nengandik bilobengana aldatu da, eta ateara itxita jarraitu du, arriskurik gabe.

Baina orain, lehenengoz, hurbil dago hon-damendia. Izaki ilunek burdinazko giltza lapurtu dute! Zorionez, heldulekuan ez zegoen harribitxirik; hala ere, Erreinu Iluneko sei harribitxi daude gure munduan ezkutaturik. Izaki ilunek horietakoren bat aurkituz gero, giltzan sartu ahalko dute eta horrela atea ireki, eta izaki zital saldoak nahieran ibiliko dira gurean kaosa eta nahasmena sortzen.

Neska bat bakarrik jarriko da haien bidean...
Sophie Smith du izena.



Zaindari berria

Zer iruditzen hau, ipotx itsusi hori! –jiratu eta, motots ilehoria hegan, Sophiek ostiko bat jo zuen eskuineko hankaz. Ez zion helburuari eman, eta arnasots bat egin zuen, bere buruarekin apur bat haserre. Orduan, begi berdeek dir-dir egin zuten erabakitasunez, eta korrika atera zen berriro, baina

Sophie eta Baso Iluna

oraingoan hurbilago salto egin eta arinago jo zuen ostikoa-. Bai! -oihukatu zuen.

DANBA! Oinarekin jo zion aitonak eusten zion kuxin zuri handiari.

